



2021-2022 IKASTURTERAKO PLAN EGOKITUA (Hezkuntza)



HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

(2022ko martxoan eguneratua)

Dekanotza Taldea

Aurkibidea

| | |
|---|---|
| SARRERA | 2 |
| LEHEN KONTSIDERAZIOAK | 2 |
| IKASTEGIAN SARTZEKO ETA IRTETZEKO ARGIBIDEAK | 2 |
| IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA | 3 |
| INFORMATIKA GELAK | 4 |
| PRAKTIKA MOTORREN IRAKASKUNTZA | 4 |
| PASILLOAK, IKD GUNEA ETA IKASTEKO-JATEKO GELA | 5 |
| BULEGOAK ETA TUTORETZA ORDUAK | 5 |
| BILERAK | 5 |
| ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK | 6 |
| ESPAZIOAK AIREZTATZEA | 6 |
| GARBIKETA PROZESUA | 6 |

SARRERA

Pandemia egoera batean jarraitzen dugu (COVID-19) eta, egoera hobetzen ari bada ere, oraindik ere beste ikasturte atipiko bat izaten ari da. Hala ere, guztiok egindako ahaleginari eta erakutsitako konpromisoari esker, desiratutako normaltasunerako urrats garrantzitsuak ematen ari gara.

Iaz, konfinamendu garaitik atera berriak, Errektoretza Taldearekin koordinatuta, eta lanordu askoren eta ahalegin kolektibo handi baten ondorioz, Fakultate Plan hau aurkeztu zen; helburu argi bat lortzera bideratuta zegoen: prebentzio- eta babes-neurriak ezartzea, ikasleen, AZP eta irakasle eta ikertzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, eta ikasturte berria ahalik eta ondoen garatu ahal izateko. Uneoro plan dinamiko gisa aurkeztu zen, betiere osasun, lan eta hezkuntzako agintariek eta UPV/EHUK ezarritako jarraibideen arabera eguneratuko zena.

Ezinbestekoa da denok plana ezagutzea eta errespetatzea, elkar zaintzen eta babesten jarraitzeko. Erabateko presentzialtasuna berreskuratu da eta, zorionez, pandemiaren egoera nabarmen hobetzen ari da. Hori dela eta, planaren bertsio honetan normaltasunera bueltatzeko aldaketa adierazgarriak jaso dira. Elkartasuna, ulermena, kontzientzia kolektiboa eta, batzuetan, pazientzia (gure artean beti egon behar duten alderdiak, bestalde) ezinbestekoak izaten jarraituko dute 2021-2022 ikasturte hau behar bezala garatzeko.

Lehen kontsiderazioak

- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko kide guztien erantzukizuna da COVID-19ren transmisioa kontrolatzera eta murriztera bideratutako babes-neurriak zorrotz betetzen laguntzea.
- Nolanahi ere, kontuan hartuta gomendioak eta neurriak aldatzen joan daitezkeela, gomendatzen da une oro kontsultatzea UPV/EHUK berariaz sortutako webgunea, non eguneratzen baita jarraitu beharreko informazio, neurri, protokolo eta abar guztia: <https://www.ehu.eus/eu/covid-19>, bai eta Fakultatearen beraren webgunea ere.

ERAIKINEAN SARTZEKO ETA ATERATZEKO ARGIBIDEAK

• Ikastegian sartzea

Sarrera ate nagusitik edo atzeko atetik (martxoaren 9tik aurrera berriz ere irekiko da) egin ahal izango da . Pilaketak saihesteko, **mailaz maila sartuko dira ikasleak**, honako planteamendu honen arabera:

GOIZEKO ORDUTEGIA

Bigarren maila: klaseak egunero hasiko dira webgunean agertzen den ordutegia baino 10 minutu lehenago.

Hirugarren maila: webgunean agertzen den ordutegia mantentzen da.

Laugarren maila: klaseak egunero hasiko dira webgunean agertzen den ordutegitik 10 minutura.

ARRATSALDEKO ORDUTEGIA

Lehen maila: web-orrian agertzen den ordutegia mantenduko da. Lehen Hezkuntzako klaseak 14:00etan hasiko dira, eta Haur Hezkuntzakoak 14:30ean.

Ezinbestekoa da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- Ordutegiak puntualtasunez errespetatzea.
- Ikastegira modu ordenatuan eta maskara jantzita sartzea.

• Ikastegitik irtetea

Irteeretarako ere sarrera nagusiko atea edo atzeko atea erabili ahal izango dira.

PREBENTZIO NEURRIAK

Une hauetan indarrean mantentzen den neurria maskararen erabilera egokia da; honez gain, pertsonen arteko distantzia eta gel hidroalkoholikoa maiz erabiltzea ere gomendatzen da.

IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA

- **Ezinbestekoa da Sailek bermatzea eGELA aktibo mantentzen dela irakasgai guztietan**, ikasleekin etengabeko harremana ahalbidetzen duen tresna baita.
- Aire zabaleko saioak egingo diren kasuetan (baratze ekologikoa, kirol-praktikak edo bestelako dinamikak), Antolakuntza Akademikoko Dekanordeari (arantzazu.rodriquez@ehu.eus) eta Dekanotzako Idazkariari (gerardo.mendazona@ehu.eus) jakinarazi beharko zaie.
- Talde lanetarako, moduluko edo minor irakasgai guztietarako lantalde berberak sortzea gomendatzen da, eta lau kidekoak izatea gomendatzen da. Hobe da lantaldeak ikasleek beraiek ezartzea, haien bizilekuak, garraioa, online lan egiteko aukera eta abar kontuan hartuta, baina ahaleginak egingo dira ikasgai guztietan berdina izan daitezen. Hori moduluetatik edo minorretatik koordinatzea gomendatzen da.
- Ebaluazioari dagokionez, presentzialtasun osoko egoera berri honekin bat etorriz, aurrez aurreko ebaluazioa planifikatuko da. Nolanahi ere, une bakoitzean indarrean dauden gai akademikoei buruzko erabakietan (jarraibideak eta zirkularrak) adierazitakoa bete beharko da (<https://www.ehu.eus/es/gai---akademikoak-2021-2022>) eta arreta berezia jarri beharko zaie COVID-19a dutenei edo gaixotasunaren aurrean bereziki kalteberak diren ikasleen egoerei.
- **Irakaskuntzarako eta/edo ebaluaziorako alternatiba mantendu behar dugu, modu ez-presentzialean edo urrutitik egin beharko balitz ere, COVID-19ren arrazoiengatik modalitate presentzialean sartu ezin diren ikasleen kasuan.**

- **Webex bideokonferentzia tresnak unibertsitateko kideon esku jarraituko du ikasturte osoan zehar**, aurretik aipatutako egoeran daudenek eskolen jarraipen telematikoa egin ahal dezaten.

IKASGELAK ERABILTZEKO PROTOKOLOA

Jarraian agertzen den protokoloa jarraitzea ezinbestekoa da:

1. Ikasgelak atezainek irekiko dituzte goizean eta, gela bakoitzeko saio-ordutegiaren bukaeran, itxi egingo dituzte.
2. Saioan egin beharreko aireztatze epealdiak zainduko ditu (ikusi [UPV/EHUko ikastegien funtzionamendurako neurrien 4. puntua](#)) eta, saioaren bukaeran, leihoak irekita geratzen direla ziurtatuko du.
3. Saioa bukatzean, ikasleak ikasgelatik ateratzea gomendatzen da, era horretan aireztatze hobia berma dadin.

CO2-aren NEURGAILUAK ETA ERABILTZEKO PROTOKOLOA

Baliagarriak dira ikasgeletako CO2 mailak kontrolatzeko eta, beharrezkoa denean, aireztapena areagotzeko; hau da, **800 ppm-ra iristen denean**. Hauxe da erabiltzeko protokoloa:

1. Irakasle bakoitzak Atezaintzan neurgailu bat jaso dezake ikasgelan sartu aurretik.
2. Jasotzeko unean, irakasleak mailegu-fitxan sinatu beharko du.
3. Ikasgelan egotean, kontuan izan behar da neurgailua ez dela leiho baten ondoan jarri behar.
4. Saioa amaitzean, irakasleak neurgailua Atezaintzan itzuliko du eta mailegu-fitxan entrega sinatuko du.
5. Atezaintzako langileak arduratuko dira neurgailuen bateria kargatzeaz. **HORREGATIK OSO GARRANTZITSUA DA IRAKASLE BAKOITZAK BERE SAIOAN ERABILITAKO APARATUA ENTREGATZEKO ARDURA HARTZEA.**
6. Neurgailuak edukiera handiena duten lokaletarako (ikasgelak eta kafetegia) erabili ohi badira ere, norbaitek beste lokal batean unean-unean erabili nahi badu, deskribatutako prozedurari jarraituz eska dezake.

INFORMATIKA GELAK

Informatika gelak irakaskuntzarako bakarrik erabiliko dira, edukiera kontrolatzeko. Bertan esertzeko lekuak erabiliko dira eta edukiera errespetatuko da uneoro. Ikasle bakoitzak bere postua higienizatu beharko du uztean.

PRAKTIKA MOTORREN IRAKASKUNTZA

Eraikinen barrualdean, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da une oro irakasle eta ikasleentzat:

- Gimnasioan, jarduera fisiko bizia egitea ezinbestekoa delako maskararik erabiltzen ez bada, gutxienez 2 metroko segurtasun-distantzia bermatu

beharko da, bai eta aireztapen-baldintza onak ere, eta instalazio bakoitzaren protokoloetan ezarritakoa bete beharko da uneoro.

Fakultatetik kanpo eta kanpoko kirol-instalazioetan, indarrean dagoen araudia eta instalazio bakoitzaren protokoloak beteko dira.

Eskolen antolaketari dagokionez, ahal den guztietan 10 ikasle inguruko taldeetan antolatuko dira eskolak, eta ahalik eta harreman txikiena izaten saiatuko dira. Irakaslea ahalik eta ikasle gutxienekin ere saiatuko da zuzeneko harremana izaten, bai taldeari jarraibideak helarazteko, bai erakustaldiak egiteko, etab.

Ahal den guztietan, kanpoko espazioetara eramango dira jarduerak.

Saioa prestatzeko, antolatzeko, aztertzeko eta bateratzeko denbora murriztea gomendatzen da, eta eskola magistraletara eramatea, zereginen, eGelaren eta abarren bidez. Ahal den neurrian, ikasleen arteko harremana murrizten eta materiala partekatzen saiatuko da. Materiala eta espazioa ikasleek berek higienizatu behar dituzte, taldea aldatzen den bakoitzean edo talde bereko beste ikasle batek erabili behar duen bakoitzean. Horretarako, desinfektatzailez bustitako papera erabili behar dute. Materiala eta kontaktua izan duten eremuak desinfektatu beharko dituzte (horma-barrak edo espalderak, etab.)

Kirol-instalazioetara sartzean nahiz handik irteteen, gomendatzen da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea. Aldageletan eta dutxetan edukiera errespetatu behar da.

PASILLOAK, IKD GUNEA ETA IKASTEKO-JATEKO GELA

IKD guneak, ikasteko gela eta jangela berreskuratuta dira; gune horietan ere prebentzio neurri guztiak errespetatu beharko dira eta, bazkaltzean, maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen diren momentuan izan ezik.

Pasilloetan egoteko denbora ahalik eta txikiena izan behar da.

BULEGOAK ETA TUTORETZA-ORDUAK

Erabateko presentzialtasuna berreskuratuta, tutoretza saioak aurrez aurrekoak izango dira, pandemia aurretik egiten ziren moduan; hau da, irakasleak tutoretza saioen egunak zehaztuko ditu eta modu presentzian egingo dira eskolak ematen diren ikastegian.

BILERAK

Bilerak aurrez aurre zein telematikoki egin daitezke. Bileren iraupena zaintzea ere gomendatzen dugu, gehienez ere ordu eta erdiko bilerak egiten saiatuko garela. Gogoratu behar da, era berean, zein den **bilerak egin ahal izateko adostutako tarte ofizialak:**

ASTEARTEETAN: 12:00-15:00

ZERBITZU ADMINISTRATIBOAK

Administrazio-zerbitzuetan egotea beharrezkoa bada, [aurrez hitzordua eskatuta](#) edukitzea gomendatzen da.

ESPAZIOAK AIREZTATZEA

Laneko espazioen erabiltzaileek aireztapen egokia bermatuko dute.

Atezaintzako langileek espazio komunak eta zirkulazio-eremuak behar bezala aireztatzen direla bermatuko dute.

Gelen kasuan, ahal den neurrian, leihoak uneoro irekita izatea komeni da. Horrela ez bada, CO2 neurgailuek eskainitako datuen arabera jokatu beharko da, beti ere CO2 maila 800 ppm azpitik mantentzeko.

GARBIKETA PROZESUA

Ikasgela guztiak goizeko lehen orduan garbitu eta desinfektatu egiten dira. Behin saioak hasita, horien arteko atsedenaldiak ahalbidetzen badu, mahaiei eta aulkiei errepaso bat ematen zaie; ordu erdi baino gehiagoko tarte dagoenean, zorua ere garbitzen da. Honez gain, ikasgela guztien barruan desinfektatzailea aurki daiteke. Ikasgela espezifikotan gel hidroalkoholkoa banatzeko gailua aurki daiteke.

Dokumentu hau gertatzen diren aldaketen arabera eguneratuko da.